



Esp. zk: SUBV_EVAL_INDIV/2025/4

Dirulaguntzetarako deialdia, 2024. urtean banakako ebaluazio-araubidean zuzeneko diru-prestazioak emateko gizarte-larrialdian diren pertsonen eta familien. 2025. urtea

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko prozedura garatzea deialdi honetako B) apartatuan zehaztutako jarduketak egiteko, horrela betez Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrek xedatutakoa, zeina Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak hasiera batez hartutako erabakiaren bidez onartu baitzuen 2005eko azaroaren 3an –erabaki hori behin betiko bihurtu zen, ez zelako erreklamaziorik aurkeztu jendarean ikusgai egon zen epean–. Deialdi honetan aurreikusi gabeko orotan, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko aginduak izanen dira aplikagarri. ([2006ko otsailaren 17ko NAO n argitaratua, 21. zk.](#)).

A. ENTITATE DEITZAILEA:

1. Administrazio deitzailea:	IRUÑEKO UDALA
2. Organo emailea:	Gizarte Ekintzako zinegotzi ordezkaria
3. Alor kudeatzailea:	Gizarte Ekintzako Alorra
4. Instrukzio-organoa:	Dirulaguntza kudeatzen duen alorreko idazkari teknikoa.

B. DIRULAGUNTZAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUA:

1. Deialdiaren xedea:

Gizarte-zerbitzuen arloan dirulaguntzak emateko prozesua arautzea, diru-prestazioak zuzenean emateko gizarte-larrialdian dauden eta deialdi honetako B.3) eta D) apartatuetan ezarritako baldintzak eta betebeharrak betetzen dituzten Iruñeko pertsona eta familiei. “Zuzeneko diru-prestazioak” aldizkakoak ez diren laguntza ekonomiko puntualak dira, subsidiarioak eta osagarriak, eta oinarritzko premiak asetzeko xedea dutenak.

2. Deialdiaren helburua:

Eskatzaileek aurkeztutako premia-egoerei erantzutea, oinarri hauetan jasota dauden arloetan. Baliabide profesional eta laguntza gisa jardutea Gizarte Ekintzako Alorreko programek eta zerbitzuek egindako gizarte arloko esku-hartzeetan.

3. Diruz laguntzen ahal diren ekintzak, proiektuak, jokamoldeak eta jarduerak egiteko baldintzak eta epeak:

Deialdi honen xedea da Iruñean bizi diren pertsonen eta familien dirulaguntzak ematea oinarri hauen D.1. apartatuan ezarritakoarekin bat, 2025eko urte naturalean (B.4 apartatuaren bigarren paragrafoan jasotako salbuespenarekin), baldin eta gabezia ekonomiko egiaztatuak izateagatik zailtasunak badituzte oinarritzko premiak asetzeko, apartatu honetan ezarritakoarekin bat, Gizarte Ekintzako Alorreko Programa eta zerbitzuetako profesionalen esku-hartze sozialaren esparruan.

Laguntza emateak aldi baterako konponduko du planteatutako larrialdia, eta luze gabe emanen zaio irtenbidea planteatutako larrialdi-egoerari; beraz, laguntzak eragin nabarmena izan beharko du pertsonaren laneratze-prozesuan.

Larrialdi-egoera hauek aurreikusten dira, eta jarraian deskribatzen diren baldintza eta kontzeptuak bete beharko dituzte:

A) BIZITOKIA:

Bizitokia mantentzea edo eskuratzea bermatzeko, kontzeptu hauek estaltzen ahalko dira:

a.1 Etxebizitzaren alokairua ordaintzea, etxebizitzaren hipoteka-maileguaren kuota ordaintzea, etxebizitza



BANAKAKO EBALUAZIOA

partekatuan logela ordaintzea, ordezeko ostaturia ordaintzea (pentsioa, hotela, etab.).

Baldintza: horrela egoera ez larriagotzea lortzeko dela justifikatzea, etxebizitza galdu denean, etxebizitza ordaintzeko dirulaguntza galdu denean, edo bizitoki partikular bat berehala eskuratzea ezinezkoa denean. Indarrean dauden hileko gastuak eta eskaera egin aurretik kontzeptu berarengatik sortutako zorrak kontuan hartzen ahalko dira, apartatu honetan adierazitako mugak aintzat hartuta.

a.2 Alokairuko beste etxebizitza baten kontratuari lotutako ordainketa.

Baldintzak: prestazioa eskatzen duenaren egiazko ohiko bizilekua izatea, hasierako ezohiko ordainketa egin behar izatea badakar, baldin eta egiaztatzen bada aurrerantzean haren baliabide ekonomikoekin beste etxebizitza horren ohiko ordainketa egiazki berma dezakeela.

Hori horrela, beste etxebizitza bat eskuratzea sustatuko da baldin eta eskatzaileek bizi-kalitate hobek badituzte etxebizitza berrian, horrela lortzen baita larrialdia eragin zuen aterpe-premia ez betikotzea edo mantentzea. Ildo horretatik, lehentasuna emanen zaio etxebizitza bat lortzeko egoitza edo hotel bat eskaintzearen gainetik.

a.3 Jabeen erkidegoaren zorrak.

Baldintza: horri esker lortuko baita komunitatearekin bizitzeko zailtasunik ez izatea, edo etxebizitza edo hura ordaintzeko dirulaguntzak ez galtzea.

a.1 puntuko zorrei aplikatutako irizpide bera erabiliko da (indarrean dauden zorrak, apartatu honetan adierazitako mugapenak dituzten zorrak).

BIZITOKIRAKO LAGUNTZEN BATERAEZINTASUNA:

Ez zaie Bizitoki kontzeptuagatik larrialdietarako laguntzarik emanen eskaera egiteko unean hauek jasotzen ari diren familia-unitateei:

- Nafarroan etxebizitzarako eskubide subjektiboa arautzen duen 28/2018 Foru Legean helburu bererako araututako laguntzak jasotzen dituztenei.
- Etxebizitzaren alokairua diruz laguntzeko "Etxebizitzaren alde" udal-prestazioa jasotzen dutenei.
- Udal-etxebizitza batean bizi direnei.
- Sortutako zorra bi hilabete baino gehiagoko kuota, faktura edo ordainagirie badagokie eta horiek ordaindu behar ziren epean familia-unitateak errenta bermatua, bizitzeko gutxieneko diru-sarrerara edo familia-unitatearen kide-kopuruaren araberrako diru-sarrerara baliokidea jasotzen bazuen.

Hala ere, esku-hartzea egiten duen gizarte-laneko profesionalak salbuespen arrazoituak proposatzen ahalko ditu bateraezintasun horietarako, berak egindako txosten sozialaren bitartez. Eskaera hori Gizarte Ekintzako Alorreko zuzendaritzako arduradun-taldeak gainbegiratu du, M) apartatuan ezarritakoarekin bat.

B) HORNIDURAK:

Ohiko etxebizitzako oinarritzko hornidura-premia asetzeko, honako kontzeptu hauek laguntzen ahalko dira diruz:

b.1. Ohiko etxebizitzan ur-hornidurak eta zabor-zerbitzuek eragindako zorrak.

Baldintza: horien etenak saihestea, baita horiek berrezartzeko dakarren kostua ere (hornidura eten bada). Salbuespenez, hornidura-gastuetarako laguntzak ematen ahalko dira zorra oraindik sortu gabe egonda ere, baldin eta eskatzailearen zein haren familia-unitatearen egoera sozioekonomikoa dela-eta aurreikusten bada ezinen diotela aurre egin kostu horri.

b.2. Ohiko etxebizitzan elektrizitate-, gas- eta berokuntza-hornidurek eragindako zorrak

Baldintza: hornidura horien etenak saihestea, baita horiek berrezartzeko dakarren kostua ere (hornidura eten bada).

Salbuespenez, hornidura-gastuetarako laguntzak ematen ahalko dira zorra oraindik sortu gabe egonda ere, baldin eta eskatzailearen eta haren familia-unitatearen egoera sozioekonomikoa dela-eta aurreikusten bada ezinen diotela aurre egin kostu horri.

Gehienez ere urtean 800 euroren dirulaguntza emanen zaio familia-unitate bakoitzari b.1 eta b.2 apartatuetako hornidura-kontzeptuetarako (kontuan hartuta bi hornidura-kontzeptuen batuketak ezin izanen duela muga hori gainditu).

b.3 Ohiko etxebizitzan elektrizitate-, ur- eta gas-hornidura izateko eginiko kontratuek eragindako gastuak. Hornikuntza-kontratua egiteak zer kostu duen, kopuru hori emanen da gehienez ere b.3. puntu honetan.



HORNIDURARAKO LAGUNTZEN BATERAEZINTASUNA:

- Ez zaie kontzeptu honen pean larrialdietarako dirulaguntzarik emanen eskaera egiteko unean Nafarroan etxebizitzarako eskubide subjektiboa arautzen duen 28/2018 Foru Legeak arautu eta xede bera duten laguntzak jasotzen dituzten familiei, etxebizitzaren alokairua diruz laguntzeko "Etxebizitzaren alde" udal prestazioa jasotzen dutenei eta larrialdietarako udal etxebizitzetan bizi direnei, salbu eta tramiteak egiten dituen gizarte-laneko profesionalak gizarte-txostenean proposatu eta Gizarte Ekintzako Alorreko arduradun-taldeak gainbegiratuak kasuetan, M) apartatuan ezarritakoarekin bat.

- Ez da inolaz ere hornidura dela-eta larrialdietarako laguntzarik emanen baldin eta sortutako zorra bi hilabete baino gehiagoko kuota, faktura edo ordainagiriei badagokie eta horiek ordaindu behar ziren epean familia-unitateak errenta bermatua, bizitzeko gutxieneko diru-sarrera edo familia-unitatearen kide kopuruaren arabera diru-sarrera baliokidea jasotzen bazuen.

Hala ere, esku-hartzea egiten duen gizarte-laneko profesionalak salbuespen arrazoituak proposatzen ahalko ditu bateraezintasun horietarako, berak egindako txosten sozialean. Eskaera hori Gizarte Ekintzako Alorreko zuzendaritzako arduradun-taldeak gainbegiratu du, M) apartatuan ezarritakoarekin bat.

C) ELIKADURA:

Familia-unitatea osatzen duten kideen elikadurarako eta higienarako oinarritzko premiak asetzeko xedez, eguneroko elikadurarako eta higienarako gastuak estaltzen ahalko dira (higie pertsonalerako eta etxeko higienarako oinarritzko elementuak).

Hau izanen da kontzeptu horretarako urteko gehieneko zenbatekoa, familia-unitatearen kide-kopuruaren arabera:

FAMILIA-UNITATEAREN KIDEAK URTEAN GEHIENEZ JASOTZEKO

1 kide: 500 euro urtean familia-unitateko

2 kide: 700 euro urtean familia-unitateko

3 kide: 940 euro urtean familia-unitateko

4 kide: 1.160 euro urtean familia-unitateko

5 kide edo gehiago: 1.220 euro urtean familia-unitateko

ELIKADURARAKO LAGUNTZEN BATERAEZINTASUNA:

Ez zaie elikadura premiak asetzeko larrialdietarako laguntzarik emanen eskaera egiteko unean 15/2016 Foru Legeak arautzen duen errenta bermatua edo bizitzeko gutxieneko diru-sarrera jasotzen ari ziren familia-unitateei, salbu eta laguntza horiek onuradunei egotzi ezin zaizkien arrazoiengatik murriztu badira eta familia-unitateak ezin badie elikadura premiak asetzeko gastuei aurre egin: gizarte-txostenak argi eta garbi justifikatu beharko ditu behar horiek.

D) LANERAKO PRESTAKUNTZA ETA LANERATZEA.

Gizarteratze-prozesua errazteko, eta erreferentziazko profesionalak proposatuta, arautu gabeko prestakuntza-jardueretan eta/edo gaikuntza pertsonalera bideratutako jardura soziolaboralean parte hartzeko gastuak ordaintzen ahalko dira, gehienez ere urtean 800 eurora bitarte familia-unitate bakoitzeko.

E) HAURREN ETA NERABEEN ARRISKU- EDO BABESGABETASUN-EGOERAK PREBENITZEA.

Dagokien udal-taldeek haurren eta familien arloan egindako esku-hartze sozial espezifiko baten esparruan, osorik edo beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin (Udalarenak izan ala ez) estalita ez dagoen zatian ordaintzen ahalko dira familiak bere gain hartu ezin dituen kontziliazio-zerbitzuen, haur-eskolen, haurtzaindegien, eskola-jantokiaren, aisialdiko jardueren eta beste zerbitzu batzuen gastuak. Xedea da adingabeei haurrendako zerbitzuetarako sarbidea erraztea, prebentziorako eta haurrak babesteko neurri gisa.

Laguntzak ez du inola ere gaitutuko dagokion zerbitzuaren kostua.

Laguntza haurtzaroko eta familiako lantaldearen esku-hartze esparrutik kanpo eskatzen bada, eskaera Gizarte Ekintzako Alorreko zuzendaritzako arduradunen taldeak gainbegiratu beharko du.

F) BESTELAKO OINARRIZKO BEHAR BATZUK.



BANAKAKO EBALUAZIOA

Apartatu honetan, aurreko apartatuetan zehaztu ez diren laguntzak jasotzen ahalko dira, baldin eta gizarte-arloko esku-hartze baten esparruan erreferentziazkoa den profesionalak egindako balorazio teknikoaren bidez justifikatzen bada laguntza horiek emateko premia. Gizarte Ekintzako Alorreko zuzendaritzako arduradunen taldeak gainbegiratuko ditu laguntza horiek. Hau izanen da kontzeptu horretarako urteko gehieneko zenbatekoa, familia-unitatearen kide-kopuruaren arabera:

FAMILIA-UNITATEAREN KIDEAK URTEAN GEHIENEZ JASOTZEKO

- 1 kide: 500 euro urtean familia-unitateko
- 2 kide: 700 euro urtean familia-unitateko
- 3 kide: 940 euro urtean familia-unitateko
- 4 kide: 1.160 euro urtean familia-unitateko
- 5 kide edo gehiago: 1.220 euro urtean familia-unitateko

* AURRERAKIN MODALITATEA:

Apartatu honetako edozein kontzeptutan ematen ahalko dira larrialdietarako laguntzak aurrerakin-modalitatean, eta onuradunak itzultzeko konpromisoa hartu beharko du, Q apartatuan ezarritakoarekin bat.

4. Baloratzeko betekizunak, bideak eta lehentasunak:

☒ BAI ☐ EZ

- Dirulaguntzak eskabide-hurrenkeraren arabera emanen zaizkie oinarri hauetan ezarritako betekizunak betetzen dituztenei, eta betiere eskaerari erantzuteko aurrekontu-kontsignazioa dagoen bitartean. Indarrean den aurrekontuan horretarako kreditu eskuragarririk badago bakarrik emanen dira dirulaguntzak.

- Kontuan hartuko dira aurreko deialdian epearen barruan aurkeztu (2024ko abenduaren 15etik abenduaren 31ra bitarte) eta ekitaldia itxi zelako dirulaguntzarik jaso ez zuten eskaerak, baldin eta deialdi honetan galdatutako betekizunak betetzen badituzte, B.3 apartatuarekin bat.

- Eskatutako dirulaguntzak eman aurretik balorazio soziala eginen da, teknikari profesionalek proposatutakoari jarraikiz. Oinarri hauekin bat Gizarte Ekintzako Alorreko zuzendaritzako arduradunen taldeak gainbegiratu behar badu, proposamenak haren oniritzia izan beharko du.

C. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRULAGUNTZEN GEHIENEO ZENBATEKO OSOA ETA BANAKAKO ZENBATEKOA:

1. Deialdian gehienez ezarritako zenbateko osoa: 700.000 €

Apartatu honen amaieran adierazitakoa ezertan galarazi gabe, aurrekontu-kontsignazio horiagortzen bada eta Gizarte Ekintzako Alorrean 2025erako aurreikusitako beste jardueretako batzuk ez badira egin, jarduera horietarako aurreikusitako zenbatekoak deialdi honetan erabiltzen ahalko dira.

Gehikuntza horren onuradun izanen dira eskaera deialdi honekin bat eta dirulaguntza-eskaerak aurkezteko epearen barruan egin duten eskatzaileak, baldin eta prestazio ekonomikorik jaso gabe gelditu badira kreditua agortu izanaren ondorioz.

Dirulaguntzek ezin izanen dute gainditu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.

2. Aurrekontuko partida: 70/23181/480000

3. Banakako gehieneko zenbatekoa eta hori zehazteko irizpideak: Dirulaguntza hauen onuradun izaera eskuratzen duten pertsona edo familia-unitate eskatzaileei ematen zaizkien laguntzek ez dituzte kopuru hauek gaindituko urtean oro har (hau da, oinarri hauetan adierazitako larrialdi-kasu guztiak batuta):



BANAKAKO EBALUAZIOA

Familia-unitatearen kide-kopurua	Urteko, gehienez ere	Eskaerako, gehienez ere
1 kide	860	430
2 kide	960	480
3 kide	1060	530
4 kide	1160	580
5 kide edo gehiago	1260	630

Eskaera bakoitzeko, ezin izanen da aurreko taulan ezarritako gehieneko zenbatekoaren % 50 baino gehiago eman (urteko gehieneko guztizkoa).

Salbuespenez, baldin eta larrialdi-egoerak gastu handiagoa badakar –urteko gehieneko kopuruaren barruan–, aztertzen ahalko da eskaerako gehienekoa handitzea, baldin eta horretarako kreditu nahikorik bada.

Salbuespen gisara, larrialdia muturrekoa bada eta adingabeak babesgabe geratzeko arriskua badago edo egoera atzera-bueltarik gabe larriagotu bada, kopuru horiek handitzen ahalko dira, urtean 1.260 €-ko gehienekoa gainditu gabe, betiere kasuaz arduratzen den gizarte-langileak egindako gizarte-txostenak argi eta garbi justifikatu eta abalatzten badu eta Gizarte Ekintzako Alorreko zuzendaritzako arduradunen taldeak oniritzia ematen badio.

4. Urte anitzeko deialdia: ☒ BAI ☐ EZ

Urte anitzeko deialdia izanez gero, urte anitzeko gastuetarako baimena eta konpromisoa dagokien aurrekontuetan ekitaldi bakoitzerako ezartzen den kredituaren menpe egonen dira.

5. Urtekoak:

Urteko arrunta:	0 €	2. urtekoa ()	€	4. urtekoa ()	€
1. urtekoa (2025)	700.000 €	3. urtekoa ()	€		

D. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNA IZATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

1. Pertsona edo entitate onuraduna izateko bete beharreko baldintzak:

Dirulaguntza ematea zertan oinarritzen den, egoera horretan dauden pertsonak edo entitateak izaten ahal dira onuradun, baldin eta ondoren aipatzen diren inguruabarretan badaude eta Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan ezartzen diren ezein debeku-ziok eragiten ez badie, salbu deialdiaren izaera kontuan izanik azken baldintza horren salbuespena egiten bada eta apartatu honetan hala egin dela adierazten bada.

Berariazko betekizunak: ☒ BAI ☐ EZ

Eskatzaileek baldintza hauek bete behar dituzte:

- 18 urtetik gorakoa edo adingabe emantzipatua izatea.
- Iruñean bizitzea benetan edo bertako erroldan izena emana izatea, gutxienez sei hilabete lehenagotik. Salbuespen gisa, eta beharra benetan larria denean, antzinatasuna ez da kontuan hartuko, eta nahikoa izanen da eskaera egiteko unean erroldan izena emana izatea.
- Gizarte arloko esku-hartze prozesu batean parte hartzen aritea, Iruñeko Udaleko Gizarte Ekintzako Alorraren programen eta zerbitzuen bidez, eta gizarte esku-hartzearen barruan hitzartutako itzulketa-betebeharra egunean edukitzea. Itzulketa-betebehar hori egunean eduki ezean, ezin izanen dute prestazio hau berriz eskatu deialdi honek dirauen bitartean, eta eskatzen bada, ez da onartuko.



BANAKAKO EBALUAZIOA

4. Prestazioak eskatu izana –horiek eskatzeko eskubidea edukitzekotan– (errenta bermatua, bizitzeko gutxieneko diru-sarrera, Estatuko Enplegu Zerbitzuko edo Gizarte Segurantzako prestazioak, adingabeen mantenu-pentsioak, jantokirako bekak eta eskola-materiala), bai eta larrialdi-egoerari aurre egiten lagundu dezakeen beste edozein prestazio edo baliabide eskatu izana ere, deialdi honetan araututako diru-prestazioak subsidiarioak dira-eta.

Era berean, laguntza horiek lortzeko baldintza da dagozkion prestazioak eten ez izana, hala nola errenta bermatua, bizitzeko gutxieneko diru-sarrera eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren (SEPE) prestazioak, prestazio horiei lotutako betebeharrak ez betetzeagatik, hala nola enplegu-eskatzaileria gisa alta emanda ez egotea edo enplegu-eskaintzei ez erantzutea, hori eskatzailerari argi eta garbi egotzi ahal izan zaionean.

SALBUESPENA. Nafarroako Gobernuaren larrialdietarako ezohiko laguntza eskatu bada laguntza hori jaso dezakeen kontzeptu batengatik, eta laguntza hori oraindik jaso ez bada, baina larrialdi-egoera dela-eta berehala ordaindu behar bada, Udalaren larrialdietarako laguntza lortu ahalko da aurrerakin-modalitatean, Q apartatuan ezarritakoarekin bat.

5. Bizikidetzako familia-unitatearen hileko baliabide ekonomikoek ez gainditzea unean-unean eta familia-unitate eskatzaileraren kide-kopuruaren arabera errenta bermatua jasotzeko ezarritako zenbatekoak.

Deialdi honen ondorioetarako, hauek osatzen dutena hartzen da elkarbizitzako familia-unitate gisa: ezkontideak, bikote egonkorak eta halako afektibitate-harremana dutenak, haien seme-alabak eta odolkidetasuneko 2. gradura bitarteko eta ezkontza-ahaidetasuneko 1. mailako senidetasun harremanaz loturiko gainerakoak, baldin eta etxebizitza berean bizi badira.

Elkarbizitzako familia-unitatearen baliabide ekonomikoak kalkulatzeko, haren kide guztien enpleguak eta xede honez besteko prestazioek sortutako hileko diru-sarrera garbiak hartuko dira kontuan. Halaber, ondare-etekinak –halakorik egonez gero– hartuko dira kontuan, haien urteko zenbatekoa zati 12 eginez.

Errenta Bermatua arautzen duen 15/2016 Legean ezarritako mugak aplikatuko dira kapital higigarriari eta higiezinari dagokienez.

SALBUESPENA: Eskatera egiten den unean errenta bermatua eskuratzeko mugak gainditzen dituzten diru-sarrerak dituzten pertsona edo familia-unitateei laguntzak ematen ahalko zaizkie baldin eta prozesuan esku hartzen duen gizarte-teknikariak larritasun- eta arrisku-kasuak atzematen baditu, betiere Gizarte Ekintzako Alorreko zuzendaritzako arduradun-taldeak gainbegiratuta.

Dirulaguntza berezia denez, pertsona edo entitate onuradunek ez daukate zertan egiaztatu Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10.2 artikuluan araututako betekizunak betetzen dituztela:

☒ BAI ☐ EZ

2. Nola egiaztatu pertsona edo entitate onuradun izateko betekizunak betetzen direla: Deialdi honen G.4) apartatuan eskatzen diren agiriak eta informazioa aurkeztuta dirulaguntzaren eskabidearekin batera.

E. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNEN BETEBEHARRAK:

Deialdi honen ondorioetarako, pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak dira Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 11. artikuluan eta apartatu honetan ezartzen direnak.

Berariazko betebeharrak:

☒ BAI ☐ EZ

a) Jasotako dirulaguntza hori eman den xede jakin horretarako erabiltzea.

b) Erreferentziazko langile teknikariekin adostutako helburua betetzea eta jarduerak edo egitekoak gauzatzea, dirulaguntza honen eskaeraren oinarri den egoera zuzentzeko helburuz.

c) Eskatzailerari edo elkarbizitzako unitatearen edozein kideri egokitzen ahal zaion diru-eskubide edo -prestazio oro baliatzea, dela laguntza eskatu baino lehen dela hura baloratzeko aldian.

d) Dirua itzultzeko aurrez sinatutako konpromisoa betetzea, jasotako zenbatekoa Iruñeko



Udalari itzulita, aurrerapen-modalitatean.

e) Laguntzaren xedea justifikatzea, Ñ apartatuan ezarritakoarekin bat.

f) Oker jasotako prestazioen zenbatekoa edo oker jasotako kopuruak itzultzea.

g) Udalaren aurrean agertzea eta harekin lankidetzan aritzea, hala eskatzen zaionean.

Iruñeko Udalaren edo haren erakunde autonomoen dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek behar bezalako publizitatea egin beharko dute dirulaguntzaren xede diren jarduerak edo proiektuak udalak emandako finantzaketa publikoaren bidez egin direla hedatzeko. Horretarako:

- Udalaren logotipoa txertatu beharko da komunikazio edo publizitate idatzi eta grafikoetan (liburuxka, kartel, katalogo, webgune, prentsa-iragarki, publizitate digital, telebista eta abarretan), eta baita legenda hau ere: "Iruñeko Udalaren laguntzarekin – Con la colaboración del Ayuntamiento de Pamplona". Udalaren logotipoa dirulaguntza jaso duen entitatearenak duen tamaina berekoa izanen da gutxienez.
- Irratian eta beste komunikabide ez-grafikoetan egiten den komunikazio edo publizitatean lokuzio hau txertatu beharko da: "[Jarduera / Proiektu] hau Iruñeko Udalaren laguntzarekin egin da".
- Promozio- edo publizitate-oparietan eta dirulaguntzak finantzatzutako beste edozein gauza edo produktutan Iruñeko Udalaren logotipoa duen etiketa bat jarri beharko da.

Betebehar hau ez bada betetzen, dirulaguntza itzuli beharko da.

Dirulaguntza zehazki zer xedetarako eman den, horretan erabiltzeko betebeharra, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 29.4 artikuluekin bat: ☐ BAI ☒ EZ

Xede-epea:

F. PROIEKTUAREN ALDAKETAK:

Proiektuan aldaketak egiteko aukera:

☐ BAI ☒ EZ

G. ESKAERAK NON ETA NOIZ AURKEZTU:

1. Eskaerak non aurkeztu:

Eskabideak toki hauetan aurkeztu behar dira: Iruñeko Udaleko Erregistro Orokorrean (Kondestablearen jauregia, Kale Nagusia 2, behea), erregistro osagarrietan, edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako beste edozeinetan.

2. Eskaerak aurkezteko epea: Eskaerak aurkezteko epea deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta deialdiaren indarraldi osoa hartuko du. Deialdia 2025. urtean egonen da indarrean, baldin eta aurkezten diren eskaerei erantzuteko aurrekontu-kreditua badago, C.1) apartatuan adierazitakoa ezertan galarazi gabe.

Aipatutako epetik at aurkeztutako eskaerak ez dira onartuko.

3. Eskabideak eta agiriak nola aurkeztu:

Laguntza hau eskatzeko, eskabide bat aurkeztu beharko da interesdunak berak sinatuta edo zuzenbidean



baliadun den edozein bide baliatuta ordezkari dela egiaztatzen duen pertsona batek sinatuta, deialdi honen I. eranskineko ereduarekin bat. Eskabidearekin batera, deialdi honen G.4) apartatuan aipatzen diren agiriak eta argibideak aurkeztuko dira.

Eskaera batek ez baditu betetzen deialdi honetan ezarritako betekizunak, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio hala egin ezean ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, betiere alde aurretik ebazpena emanen delarik, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 21. artikulua ezarritakoarekin bat.

Baldin eta galdatutako agiriak Iruñeko Udalaren edo haren mendeko erakunde autonomoen eskuetan badaude, haien ordezkari erantzukizunpeko adierazpena aurkezten ahalko da indarrean direla egiaztatzeko, bertan adieraziz noiz eta zein organo edo bulegotan aurkeztu ziren edo, hala badagokio, nork eman zituen edo non dauden jasota, betiere ez badira bost urte baino gehiago pasatu agiri dagokien prozedura amaitu zenetik.

Dirulaguntza jasotzeko eskabidea aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onartzea.

Agiri horiek Auzo Unitatearen espedientearen artxibo digitalean jasoko dira, kontsultatuak izan daitezke.

4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

Interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duen agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzekoa.

Horri dagokionez, eskatzaileak NANA, AIZA edo pasaportearen kopia aurkeztu beharko du eskabidearekin batera.

Familia-unitatea osatzen duten gainerako kideen agiriak: NANA / AIZA / pasaportea eta, adingabeen kasuan, familia-liburuaren edo jaiotza-agiriaren kopia modu digitalean jasoko dira auzo unitatearen artxibo digitalean, eta horrela ez zaio paperean kopiari erantsi beharko eskabideari, ezta berriz aurkeztu ere behin jaso ondoren.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, deialdi honen II. eranskina eredu hartuta, ziurtatzeko eskatzaileak betetzen dituela onuradun izateko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrek eskatzen dituen betekizun orokorrak eta deialdi honek eskatzen dituen berariazkoak, eta ez diola ezein debeku-ziok eragiten Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikuluan aipatzen diren artetan.

c) Agiri hauek, eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari buruzko betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzeko:

☐ Administrazio eskudunek emandako ziurtagiriak.

☐ Eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, aipatu betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzeko. Hala bada, dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin aurretik, interesdunari eskatu beharko zaio gehienez ere 15 eguneko epean aurkeztu ditzala adierazpenean jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzen duten agiriak (administrazio eskudunek emanak).

Udalak ofizioz egiaztatuko du interesdunak egunean dituela administrazio horrekin dituen zerga-betebeharrak, eta dagokion eginbidearen bitartez adieraziko du egiaztapen hori.

d) Eskatzailea nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoen elkarteren bat bada –publikoa zein pribatua–, eskabidean berariaz adierazi beharko da elkarteko kide bakoitzak zer egiteko konpromisoa hartu duen eta zenbateko dirulaguntza aplikatuko den kide bakoitzeko. Kideok ere onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, elkarteren ordezkari edo ahalduz bakar bat izendatu beharko da, eta behar beste ahalorde emanen zaizkio elkarrekin onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan.



e) Adierazpen batean bildu beharko dira beste administrazio, entitate edo pertsona publiko edo pribatu batzuei helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik jasotako dirulaguntzak, eta entitate emaileen izenak, eskatutako kopuruak eta jasotako zenbatekoak zehaztu beharko dira. (Ikusi, behar izanez gero, deialdi honen III. eranskina). ☒ BAI ☐ EZ

f) Memoria: eskatzen den dirulaguntzari lotutako proiektu, ekintza, jarduera edo programa deskribatu behar du.

g) Diru-sarreraren egiaztagiria:

Eskabidea egiteko unean, laguntza hauetarako ezarritako diru-sarreraren muga gainditzen ez dutela egiaztatzeko beharrezko agiriak aurkeztuko dituzte eskatzaileek, aintzat hartuta laneko diru-sarrerak eta xede honez besteko prestazioak: nominak edo jasotzen dituzten prestazio eta subsidioen ebazpenak, betiere ezin badira egiaztatu Nafarroako Gobernuak informazio-sistemen bidez.

Legez kanpoko jardueren truke jasotako diru-sarrerak badira, eskuratutako diru-sarreraren erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da.

Gauza bera egin beharko dute egiaztatzeko eskabidea aurkezteko unean familia-unitateko kide guztien ondasun higigarriak ez dutela gainditzen Errenta Bermatua eskuratzeko eskubidea eta gizarteratzeko eskubidea arautzen duen 15/2016 Legean ezarritako ondasun higigarri konputagarrien balioa. Era berean, familia-unitateko kide guztien ondasun higiezinaren katastro-balioak, ohiko etxebizitza aintzat hartu gabe, ez du joko kide bakarreko familia-unitate batek urtean jasotzen duen Errenta Bermatua halako 10 baino gehiago. Betekizun hori salbuetsi egingen da ondare hori diru bihurtzea ezinezkoa dela justifikatzen bada.

Diru-sarreraren apartatuko egiaztagiriak auzo unitateko espedientearen artxibo digitalean jasoko dira, eta ez da beharrezkoa izaneren eskaera egitean kopia digitala edo paperekoa aurkeztea, balorazio-taldeak berariaz eskatzen ez badu.

h) Eskatzailearen eta/edo familia-unitatearen premiazko egoera eta egin beharreko gastuak edo sortutako zorra egiaztatzeko agiriak: aurrekontuak, fakturak, zorren edo ordaintzeko betebeharraren egiaztagiriak (alokairuak, zerbitzuak), alokairu-kontratuak (etxebizitzaz aldatzeko bada, edo alokairu legala), edo merkataritza-trafikoan froga-balio bera duen edo administrazio-eraginkortasuna duen beste edozein dokumentu. Logela bat ordaintzeko bada, kontratuaren ordezkari errentatzaileak eginiko idatzi bat aurkeztu beharko da, eta errentatzaileak etxebizitzaren jabea izan beharko du, eta/edo etxebizitza horretan erroldatuta egon (VII. eranskina).

i) Iruñeko Udalak dirulaguntza onuradunari ordain diezaion, eskatzaileak transferentzia bidez kobratzeko eskabidea aurkeztu beharko du, bere izenean duen banku-kontuaren libretaren edo kontuaren zenbakia adierazten duen agiriaren fotokopia, edo, hala baimendu baldin bada, eskatzaileak deialdiaren III. eranskinean jasota dagoen agiriaren bidez kobrantza-eskubidea eman dion pertsonaren edo entitate publiko edo pribatuaren banku-kontuaren libretaren edo kontuaren zenbakia.

Kobratzeko eskubidea beste pertsona bati lagatzen bazaio, haren banku-kontuaren zenbakia adierazten duen agiria aurkeztu beharko da, eta kobratzeko eskubidea erakunde bati lagatzen bazaio, nahikoa izanen da kontuaren zenbakia adieraztea.

j) Udalak ofizioz egiaztatuko du eskatzaileek erroldan izena emana duten edo elkarrekin bizi diren, eta eskaera aurkezteak esan nahiko du baimena ematen zaiola horretarako.

(*) Deialdi honen ondorioetarako, atal honen e) letran eskatzen den informazioa deialdiaren II. eranskinean dago jasota.

I. eranskina deialdi honetarako berariaz sortutako erantzukizunpeko adierazpen-eredua da; hor aitortzen



BANAKAKO EBALUAZIOA

da dirulaguntza honen onuradun izateko betekizun zehatzak betetzen direla, eta ez Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean jasotako betekizun nagusiak, D.1 klausulan xedatutakoaren arabera horiek ez baitira bete behar, laguntza hauen izaera dela-eta.

(**) Dirulaguntza honen xedea eta izaera kontuan harturik, eskatzaileei ez zaie eskatuko c), d) eta f) apartatueta adierazitako agiriak aurkezteko.

Gizarte-txostena (II. eranskineko ereduaren arabera) horretarako ezarritako profesionalek eginen dute, eta laguntzaren eskabideari atxikiko zaio.

(***) Laguntza ongi tramitatu eta baloratzeko, udal-teknikariak kasu bakoitzaren balorazio sozial egokia egiteko eskatzen dizkien agiri guztiak aurkeztu beharko dituzte onuradunek.

Eskabidea aurkeztuta BAIMENA EMATEN ZAIO Iruñeko Udalari, bere eginkizunak gauzatzean, administrazio publiko eskudunek dituzten fitxategi publikoak egiaztatu eta kontsultatzeko, deialdi honetan eskatutako betekizunak eta inguruabarrak betetzen direla egiaztatze aldera, eta zehazkiago, hauetan sartu ahal izateko: Udal Erroldan, Udal Katastroan eta zergetan, Nafarroako Gobernuko Errenta Bermatua eta horiek baloratzeko eta laguntzaren onuradun izateko baldintzak betetzen direla egiaztatze beharrezko diren agirietan. Hala, prestazioa kudeatzen duen udal-zerbitzuak ofizioz egiaztatuko ditu errenta bermatutik, bizitzeko gutxieneko diru-sarreretatik, KGPTik edo gizarteratzeko laguntzatik eratorritako diru-sarrerak, eta gizarte-txostenean jasoko du prestazioaren zenbatekoa.

Agiriek jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatuek, edo, bestela, indarreko legeekin bat benetakoak diren kopiak.

H. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA ETA EBAZPENA. EBAZPENAREN JAKINARAZPENA:

1. Prozeduraren instrukzioa: Espedienteak jaso ahala tramitatu eta ebatziko dira, horretarako aurrekontu-kreditua dagoen bitartean, betiere deialdi honen B.4) apartatuan zehaztutako betekizunen, moduen eta balorazio-lehentasunen arabera. Instrukzio-organoak emanen du ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoiturik eta espedienteak kontuan harturik, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio.

Halaber, Gizarte Ekintzako Alorraren programetako arduradun baten edo Alorrek izendatutako teknikari baten txostena ikusita emanen da ebazpen-proposamena. Zehaztuko diren Udalaren gizarte-zerbitzuetako teknikari profesionalek lehenik laguntza emateko proposamena eginen dute eta gero gizarte-txostenean jasoko dute (II. eranskineko ereduarekin bat), eta gizarte-txostena espedientearen jasoko da. Oinarri hauetan adierazitako salbuespenezko kasuetan Gizarte Ekintzako Alorreko zuzendaritzako arduradun-taldearen oniritzia beharko da.

2. Ebazteko eta jakinarazteko epea:

Ebatzi eta jakinarazteko epea BI HILABETEOA izanen da, gehienez ere. Laguntzak emateko ebazpenak kasuan kasuko auzo-unitatei edo Udaleko gizarte-zerbitzuei jakinaraziko zaizkie. Dirulaguntzen gaineko ebazpena Gizarte Ekintzako Alorreko zinegotzi ordezkariak onetsi beharko du.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta hauek zehaztuko dira ebazpenaren berariaz: nork edo zer entitatek jasoko dituen edo dituzten dirulaguntzak, laguntzak zenbatekoak diren, eta, eskaerak ezetsiz gero, nor edo zer entitate diren eskatzaileak.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta pertsona edo entitate eskatzaileei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. artikuluan agindutakoarekin bat.

3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epearen hasiera-data:

- Deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna: ☐ BAI ☒ EZ



BANAKAKO EBALUAZIOA

- Tramitatze eskumena duen organoaren erregistroan eskaera sartu den eguna: ☒ BAI ☐ EZ
- ☐ Epea kontatzeko beste sistema bat:

Behin prozedura ebazteko gehieneko epea amaituta berariazko ebazpenik eman ez bada, eskaera ezetsitatzat joko da.

I. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIKOTASUNA:

Dirulaguntzak emateko ebazpena argitaratzeko beharra: ☐ BAI ☒ EZ

Aurrekoa gorabehera, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 18.2 artikuluan adierazitakoarekin bat, Udalak Dirulaguntzen Datu-base nazionalera igorriko ditu argibideak aipatu legearen 20. artikulua ezartzen dituen baldintzekin bat emandako dirulaguntzen gaineko ebazpenei buruz.

J. DIRULAGUNTZEN XEDE DIREN GASTUAK:

1. Dirulaguntzen xede izan daitezkeen gastuen zehaztapena:

Diruz laguntzeko moduko gastutzat joko dira dirulaguntzen xede den jarduerarekin ez bairik gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak badira eta deialdi honen J.2) apartatuan ezarritako epean egiten badira. Zehazki, deialdi honen ondorioetarako, gastu hauek laguntzen ahalko dira diruz:

Bizitokiarekin, hornidurekin, elikadurarekin eta higieñarekin zerikusia duten egoerei aurre egitera zuzendutako gastuak, baita gizarteratzeko eta lanerako prestakuntzarekin eta integrazioarekin, haurren babesgabetasunarekin eta deialdi honen oinarrietan deskribatutako bestelakoekin zerikusia duten egoerak onbideratzera zuzendutakoak ere, deialdi honen B.3) apartatuan deskribatutako baldintzekin bat.

Deialdi honen B.4) eta C.3) apartatueta jasotako baldintzen arabera, horietan ezarritako mugak errespetatuz, diruz lagundu daitezkeen kontzeptuaren edo kontzeptuen gastua estaltzen ahalko da dirulaguntzarekin.

Diruz lagungarriak diren gastuetan, kostua ezin izanen da inoiz izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Egindako gastutzat joko dira deialdi honen Ñ.2) apartatuan ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen benetan ordaindutakoak: ☒ BAI ☐ EZ

Honako gastu hauek ez dira inoiz ere dirulaguntzen xede izanen:

- komunikazioko eta informazioko gastuak (telefonoa, TB edo Internet).
- oinarri hauetan adierazitakoekin bat ez datozenak.

2. Gastu diruz lagungarriak egiteko epea:

2025. urtea (oinarri hauetako B.4 apartatuko bigarren paragrafoan jasotako salbuespenarekin).

K. AZPIKONTRATAZIOA:

Jarduera osorik edo zati batean hirugarrenek egitea hitzartzeko aukera, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat:

☐ BAI ☒ EZ

Ehunekoak:



BANAKAKO EBALUAZIOA

L. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA:

Pertsona edo entitate onuradunek beren ekarpenen edo beste bide batzuen bitartez finantzatu beharko dituzte diruz lagundutako jarduerak, letra honetan zehaztutako zenbateko edo ehunekoan. Finantzaketa horren zenbatekoa, jatorria eta dirulaguntzaren xedea den jarduerari aplikatzeko era justifikatu beharko da:

☐ BAI ☒ EZ

Zenbatekoa edo ehunekoak:

M. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA:

Udalaren dirulaguntza jasotzea ☐ BATERAGARRIA ☒ BATERAEZINA da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izanen, berez edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak gehituta, dirulaguntza horien xede den jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatzen bada, bidezkoa izanen da kostuaren gainetik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.

Dirulaguntzaren xede diren jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo lortuz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da, eta, betiere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

N. ORDAINKETA:

1. Nola ordainduko diren: Dirulaguntzak modalitate honen arabera ordainduko dira:

☐ Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarrerak edo jarduerak justifikatu ondorengo ordainketa.

☒ Konturako ordainketa:

☐ Ordainketa zatikatua:

☒ Ordainketa aurreratua: Emandako zenbatekoaren % 100 ordainduko da zenbateko hori Gizarte Ekintzako Alorreko teknikari baten edo programako arduradun baten eta Alorreko idazkari teknikoaren oniritziarekin eman bada. Horiek txosten bat ere egingen dute laguntza emateko ebazpen-proposamenaren gainean).

Prestazioaren ordainketa "kutxa finkoaren" bitartez tramitatuko da, gehienez ere 15 eguneko epean, laguntza hauek berehala ematekoak baitira. Dirulaguntza emateko ebazpena onetsi baino lehen ere egin daiteke ordainketa, baldin eta organo emailea kutxa finkoko aurrerakinak ordaintzeko gaituta badago. Epe hori eskaera egiten den egunetik aurrera zenbatuko da.

☐ Ordainketa mistoa, ordainketa zatikatuaren eta aurreratuaren artekoa:

Dirulaguntzak ezin izanen zaizkie ordaindu pertsona edo entitate onuradunei ez badituzte eguneraturik zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulketa bidezkoa dela xedatu duen



BANAKAKO EBALUAZIOA

ebazpen batek zorduntzat jotzen baditu.

Nolanahi ere, laguntza hauen izaera kontuan harturik, eta lauki honen D.1) apartatuaren azken paragrafoan ezarritakoarekin bat, azken betekizun hori bete gabe izatea onartu daiteke.

Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 33.4 artikuluaen bigarren paragrafoarekin bat, deialdi honetatik kanpo geratzen da Udalarri dagokionez kobratzeke dauden zerga-zorrak emandako dirulaguntzaren konpentsazioarekin ordaintzeko aukera.

2. Bermeak eratzea:

☐ BAI ☒ EZ

Eratzeko modua eta zenbatekoa:

Ñ. JUSTIFICACIÓN:

1. Justifikatzeko modalitatea: Modalitate hau erabiliko da ezarritako baldintzak eta dirulaguntzaren helburuak bete direla justifikatzeko:

☐ Justifikazio-kontua:

☐ Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

☐ Justifikazio-kontua, kontu-ikuskaritzaren txostena aurkeztuta:

Bestelako edukiak: ☐ BAI ☐ EZ

☐ Justifikazio-kontu erraztua:

☐ Gastuaren egiaztapena moduluka (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 37. artikuluan ezarritako aginduekin bat):

Zehaztu beharrekoak:

Modulua osatuko duten unitateak:

Moduluaren unitate-kostua:

Gainerako inguruabarrak:

☐ Kontabilitate-orrien aurkezpena:

Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du egiaztatzeko aurkeztutako kontabilitateko egoera-orriak ofizialak direla eta entitateko organo eskudunak behar bezala onetsi dituela.

☒ Beste sistema bat:

1. Justifikatzeko modu orokorra:

Justifikazioa egiteko, gastua oinarri hauetan ezarritakoarekin bat egin dela egiaztatzen duten eta trafiko juridikoan baliozkoak diren agiriak aurkeztuko dira.

Agiri horiek honako hauek izan daitezke: fakturak, banku-laburpenak, ordainagiriak, kutxa-erregistroak, gastu-oharrak, edo ordainketa egin izana egiaztatzen duten bestelako agiriak, merkataritza-trafikoan balioa dutenak edo administrazio-eraginkortasuna dutenak.

2. ELIKADURArako emandako dirulaguntzen justifikazioa egiteko, eskatzaileak berak sinatutako agiri bat aurkeztu beharko du, adieraziz kontzeptu horretara bideratu duela dirulaguntza (VI. ERANSKINA), hala badagokio beste frogagiri batzuk eskatzeko ahalmena



eragotzi gabe.

3. Logelen alokairuak eragindako zorra deialdi honetako VII. ERANSKINAREN bidez justifikatuko da, baldin azpierrentamenduaren kontratua aurkezten ez bada. Era berean, hartutako zorra ordaindu ondoren, onuradunak deialdi honetako VIII. ERANSKINA aurkeztu beharko du kitapena justifikatzeko.

Laguntza ematearekin batera doan gizarte-txostenean Gizarte Ekintzako Alorreko zuzendaritzako arduradun-taldearen oniritziarekin salbuespenezkotzat jotzen diren egoeretan, dirulaguntzaren zenbateko txikiegia bada, kalean eta/edo etxerik gabe geratzeko arriskuari aurrea hartzeko, aurreko apartatueta ezarritako dokumentazioa aurkeztu ordez, egindako gastuaren adierazpena aurkeztuko da, hauek adieraziz: hartzekoduna, zor den zenbatekoa, zor horri dagokion data eta ordainketa egin zen eguna. (IX. ERANSKINA) Kasu horietan organo kudeatzaileak ordainketa egin dela egiaztatzen duten txostenak edo egoki jotzen dituen beste agiri batzuk eskatzen ahalko ditu, baita beste administrazio publiko batzuetakoak ere.

Bi kasuetan (2 eta 3), onuraduna aurkeztutako agirien egiazkotasunaren erantzule izanen da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak 28.7 artikuluan ezartzen duenarekin bat.

2. Justifikazioa aurkezteko epemuga: Gastua egin izanaren egiaztagiria dirulaguntza kudeatzen duen Udalaren gizarte zerbitzuan aurkeztuko dira, edo horretarako gaitu den helbide elektronikoaren bidez, dirulaguntza ordaintzen denetik hasi eta HILABETE BATEKO epean gehienez ere.

- Justifikazioa ez aurkezteak berekin ekarriko du dagokion itzulketa-prozedura tramitatzea.

O. DIRUA ITZULARAZTEKO BERARIAZKO ARRAZOIAK:

Zilegi izanen da hala jasotako dirulaguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, nola berandutze-interesak galdatzea –dirulaguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 45. artikuluan eta apartatu honetan adierazitako gainerako kasuetan ageri diren itzularazteko arrazoiak bat gertatzen bada.

Dirua itzularazteko berariazko arrazoiak: ☒ BAI ☐ EZ

- **Dirulaguntzaren onuradunak dirulaguntza ez badu eman zitzaion kontzepturako erabiltzen edo gastua ez badu ezarritako epean justifikatzen, dirulaguntza itzuli egin beharko du.**

- **Dirulaguntza aurrerakin-modalitatean jaso duen pertsonak hura ematerakoan ezarritako epean eta ezarritako bideetatik itzultzen ez badu.**

P. ERREKURTSOAK:

Errekurto hauek paratzen ahalko dira, aukeran, deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko har daitezkeen administrazio-ebazpenen aurka:

- Berraztertze errekurtoa, administrazio-egintza gauzatu duen udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtoa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

Q. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK:

AURRERAKIN-MODALITATEA:

Oinarri hauetan ezarritako edozein egoeratan ematen ahalko dira larrialdietarako laguntzak



BANAKAKO EBALUAZIOA

aurrerakin-modalitatean, baldin eta onuradunak hurrengo hilabeteetan jasoko baditu atzeraeraginezko prestazio ekonomiko bat edo gastu horiei aurre egiteko aurreikus daitezkeen bestelako diru-sarrerak.

Halakoetan, dirulaguntza emateko unean ezarriko da aurrerakin gisa emanen dela, eta horrek laguntza itzultzeko konpromisoa hartzera behartuko du onuraduna. Konpromiso hori laguntza ematean adierazten den epean gauzatu beharko da.

Modalitate horrek berekin ekarriko du ordaindutako zenbatekoa dirulaguntza ematen den unean ezartzen den moduan itzultzea Udalari.

Itzultzeko betebeharra betetzen ez bada, itzularazteko prozedura abiaraziko da.

- Nolanahi ere, kreditu egoki eta nahikoa egon beharko da dirulaguntzak emateko, eta, horrenbestez, ezin izanen da ezein laguntzarik ematea onetsi 2025. urteko aurrekontua indarrean sartu arte.

- Halaber, ezin izanen da dirulaguntzarik eman edo ordaindu laguntza horien kudeaketari lotutako kutxa finkoko aurrerakina onartzen ez bada, oinarri hauetako N.1 apartatuan ezarritakoarekin bat.

R. ERANSKINEN AURKIBIDEA:

☒ **I. ERANSKINA. ESKABIDE-EREDUA.**

☐ **II. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, ONURADUNAK BETEKIZUNAK BETETZEN DITUELA ETA ONURADUN IZATEKO EZEIN DEBEKU ZIOK ERAGITEN EZ DIOLA ZIURTATZEKO.**

☐ **III. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA XEDE BERERAKO DIRULAGUNTZAK ESKATU IZANARI BURUZ.**

☒ **ERANSKIN OSAGARRIAK.**

II. ERANSKINA. GIZARTE-TXOSTENA.

III. ERANSKINA. KOBRATZEKO ESKUBIDEA LAGATZEKO AGIRIA.

IV. ERANSKINA. ITZULTZEKO KONPROMISOA.

V. ERANSKINA. INFORMAZIO-AGIRIA

VI. ERANSKINA. ELIKADURA JUSTIFIKATZEKO ADIERAZPENA

VII. ERANSKINA. LOGELA ALOKATZEAGATIKO ERRENTA-ZORRAREN EGIAZTAGIARIA

VIII. ERANSKINA. LOGELAREN ALOKAIRUA ORDAINDU IZANAREN EGIAZTAGIRIA.

IX. ERANSKINA. LOGELAREN SALBUESPENEZKO JUSTIFIKAZIOA.



2025eko Larrialdietarako laguntza-eskaera

Erreferentziatzeko gizarte-langilea (1. abizena, 2. abizena, izena)					
Auzo-unitatea		Programa		SIUSS zk.	
Ezohikoa	☐ BAI ☐ EZ				

ESKATZAILEAREN DATU OROKORRAK

1. abizena, 2. abizena, izena				Sexua	
NAN / AIZ / Pasaportea		Telefonoa		Jaioteguna	
Jaioterria		Nazionalitatea			
Familiaren helbidea				Posta-kodea	
Kide kop. familia-unitatean		Adingabe kop. familia-unitatean		Gurasobakarra	☐ Bai ☐ Ez
Errenta Bermatua balorazio-prozesuan	☐ BAI ☐ EZ	Hileroko diru-sarrerak	€		

Kategoriak	Azpikategoriak	ESKATUTAKOA	ITZULKETA	EMANDAKOA Teknikariak / Arduradunak bete beharrekoa
BIZITOKIA	Alokairua, hipoteka-mailegua, logela ordaintzea			
	Etxebizitza berriaren alokairu-kontratua			
	Komunitate-zorrak			
ENERGIA	Zorrak: ura, zaborra, hornidura berrezartzekoa			
	Zorrak: elektrizitatea, gasa, berokuntza			
	Kontrazioa: elektrizitatea, ura, gasa			
ELIKADURA				
GIZARTERATZEA				
HAURRENDAKO PREBENTZIOA				
BESTE BEHAR BATZUK				
Guztira:				

1. kontuaren titularra	Bankua edo Kutxa
ES - - - -	Zenbatekoa
2. kontuaren titularra	Bankua edo Kutxa
ES - - - -	Zenbatekoa
3. kontuaren titularra	Bankua edo Kutxa
ES - - - -	Zenbatekoa



Nik, dirulaguntzaren eskatzaile honek, gizarte-larrialdian diren pertsonen eta familien 2025. urtean banakako ebaluazio-araubidean "Zuzeneko Diru-prestazioak" emateko dirulaguntzen deialdiaren berri izan dut eta honako hau adierazten dut:

- Betetzen ditudala deialdi honetan onuradun izateko galdatutako baldintzak, eta dirulaguntzak eskatzeko eskabidean jasotako datuak eta emandakoak benetakoak direla eta baditudala hori egiaztatzen duten agiriak; aginte eskudunek egin beharreko egiaztapenaren menpe geratzen naizela, eta, datuak faltsuak direla egiaztatuz gero, nire gain hartzen ditudala hortik eratorritako erantzukizunak.
- Konpromisoa hartzen dudala eskatutako dirulaguntzaren zenbatekoa dirulaguntza emateko oinarritzat hartu diren helburuak eta jarduerak betetzera bideratzeko.

Eskabidea aurkeztuta, honetarako BAIMENA ematen zaio Iruñeko Udalari:

- Administrazio publiko eskudunek dituzten fitxategi publikoak kontsultatzeko: Udal Errolda, Katastroa eta udal zergak. Nafarroako Gobernuko Errenta Bermatua kontsultatzeko, bai eta baloraziorako beharrezkoak diren agiriak ikusteko eta laguntzaren onuradun izateko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko ere.
- Errenta Bermatuaren, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren, KGPren edo Gizarteratzeko laguntzen bidez jasotako diru-sarrerak ofizioz egiaztatzeko.

Xede bererako dirulaguntzen eskaerei dagokienez, honako hau adierazten dut (markatu dagokiona):

- ☐ Ez diet ezein dirulaguntza eskatu, deialdi honen xede bererako, nazioko edo nazioarteko beste administrazio publiko, erakunde publiko zein pribatu edo beste ezein partikularri, eta ez dut halakorik jaso haiengandik.
- ☐ Dirulaguntza hauek eskatu dizkiet, deialdi honen xede bererako, nazioko zein nazioarteko beste administrazio publiko, erakunde publiko zein pribatu edo beste edozein partikularri: (zehaztu data, entitatea eta zenbatekoa)
- ☐ Dirulaguntza hauek jaso ditut, deialdi honen xede bererako, nazioko zein nazioarteko administrazio publiko, erakunde publiko zein pribatu edota partikular hauen eskutik: (zehaztu data, entitatea eta zenbatekoa)

Iruñean, -(e)(a)n

Profesionalaren sinadura:

Eskatzailearen sinadura:



GIZARTE-TXOSTENA 2025EKO LARRIALDIETARAKO LAGUNTZETARAKO

Erreferentziatzeko gizarte-langilea (1. abizena, 2. abizena, izena)

Auzo-unitatea

Programa

SIUSS zk.

ESKATZAILEAREN DATU OROKORRAK

1. abizena, 2. abizena, izena

NAN /
AIZ /
Pasap
ortea

Diru-sarreraren jatorria¹

Zenbatekoa

0,00

0,00

0,00

Diru-sarrerak, guztira, eskaera egitean

0,00

¹ Pentsioak, langabezia-prestazioak, sorospenak, mantenu-pentsioak, haborokinak, okupazio-zentroetakoak, errentak, errentamenduak, etab.

Etxebizitza-mota²

Etxebizitza-
kostua

² Berea, alokairuan, logela batean

EGOERA IDENTIFIKATZEA

Labur deskribatu familia-unitate mota, eta une honetan dituen baliabideak eta zailtasunak.

DIAGNOSTIKO SOZIALA, ESKU-HARTZEAREN HELBURUAK, EGIN BEHARREKO EKINTZAK, ESKU-HARTZE PLANA

Aipatu zer behar edo eskari bete behar duten eta zergatik ezin dioten aurre egin beren kabuz oraintxe bertan: ustekabeko gastu bat, diru-sarrerak erabiltzea bat-bateko beste gastuetarako, diru-sarrerarik ez edukitzea edo galtzea, eta abar.

LAGUNTZA EMATEKO PROPOSAMEN TEKNIKOA (aukera anizkoitza):

1. Aldekoa

☐

2. Aurkakoa, eskatzaileak hala eskaturik

☐

3. Ezohikoa

☐



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

T. 948 420 100 / 010
www.pamplona.es

ÁREA DE ACCION SOCIAL

EKINTZA SOZIALEKO ALORRA

SINATUA:



III. ERANSKINA

KOBRAZKEKO ESKUBIDEAREN LAGAPENA 2025

Eskatzaileak, _____ jaunak/andreak (NAN/AIZ/Pasaporte zk.: _____), honen bidez pertsona edo entitate honi lagatzen dio Iruñeko Udalak 2025erako deitu dituen Gizarte-larrialdietarako laguntzen arloko _____ euroko dirulaguntza kobratzeko eskubidea:

- Izena:
- IFK:
- Helbidea:
- Ordainketarako kontua:

Jasota gera dadin eta eskualdaketa onartzen dudala frogatzeko, dokumentu hau sinatzen dut,
Iruñean, 2025eko _____ aren (e)(a)n

Lagatzailea (eskatzailea)

Izpta.:



IV. ERANSKINA

2025EKO LARRIALDIETARAKO LAGUNTZA ITZULTZEKO KONPROMISOA

GIZARTE-LARRIALDIAN DAUDEN PERTSONA EDO FAMILIENDAKO ZUZENEGO DIRU-
PRESTAZIOAK

ITZULTZEKO KONPROMISOAREN EGIAZTAGIRIA

Izen-abizenak: _____ NAN / AIZ / Pasaporteak:
_____ Iruñeko helbidea:
_____ kalea, _____ zk., _____ solairua.

KONPROMISOA HARTZEN DU IRUÑEKO UDALARI ESKATUTAKO LARRIALDIETARAKO
LAGUNTZATIK _____ € ITZULTZEKO, PRESTAZIOA BIDERATU ZUEN GIZARTE
ZERBITZUETAKO PROFESIONALAREKIN HITZARTUTAKOAREKIN BAT.

ZENBATEKOA IRUÑEKO UDALAREN KONTU-ZENBAKI HONETAN SARTUKO DA:

Bankua / Kutxa: CAIXA
Kontu-zk.: ES98 2100 -9161 -40 -2200089727

DIRU-SARRERAREN KONTZEPTUAN LARRIALDIKO LAGUNTZAREN ONURADUNAREN IZEN-
ABIZENAK ETA NAN/AIZ/PASAPORTEA AGERTU BEHARKO DIRA

Iruñean, 2025 (e)ko (a)ren (e)an

Izpta.: _____



V. ERANSKINA

2025EKO LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK JUSTIFIKATZEARI BURUZKO INFORMAZIO-AGIRIA

Une honetan Udalaren larrialdietarako laguntza bat eskatzen ari zara.

Laguntza emanaz gero, ordainketa egun gutxi barru jasoko duzu, eta beraz:

Laguntza elikadurarako bada, erantzukizunpeko adierazpen bat sinatu beharko duzu, laguntza oinarrizko beharrak asetzeko elikagaiak edo artikuluak (higienea, etab.) erostera bideratu dela adieraziz..

Aipatu adierazpena zure gizarte-langileak emanen dizu. Auzo-unitatean sinatuta entregatu behar duzu, edo ayudas2025@pamplona.es helbidera bidali

Gainerako laguntzetarako (ostatua, hornidurak, etab.): ordaindu duzula egiaztatzen duen ordainagiria edo beste agiri bat aurkeztu behar duzu.

Hilabeteko epea daukazu agiri horiek aurkeztu edo bidaltzeko.

Ez badituzu aurkezten, dirulaguntzaren dirua itzultzeko eskatuko zaizu.

Larrialdietarako laguntza-eskaera egiten duen profesionalak eskatzaileari jakinarazi dio laguntzaren gastua justifikatu behar duela dagokion agirien bidez, eta laguntza itzuli beharko duela gastu hori ez justifikatzekotan. Izpta.: Profesionala

Eskatzaileari jakinarazi zaio laguntzaren gastua justifikatu behar duela dagokion agirien bidez, eta laguntza itzuli beharko duela gastu hori ez justifikatzekotan, eta aipatu informazioa ulertu du.

Izpta.: Eskatzailea

Iruñean, 2025eko _____(a)ren ____ (e)(a)n



VI. ERANSKINA

ELIKADURA-JAKIAK JUSTIFIKATZEKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA 2025.

Izen-abizenak:.....,

NANa:

..... Nik, datu horien jabe naizen honek, gizarte-larrialdi egoeran diren pertsonen eta familiei banakako ebaluazio-araubidean “zuzeneko diru-prestazioak” emateko 2025. urteko dirulaguntzen deialdiaren berri edukita, honako hau ADIERAZTEN DUT:

ELIKADURA kontzeptuan eskatutako Larrialdietarako Laguntza hori eskatzea justifikatu zuten elementu edo ondasunak ordaintzeko erabili dut.

Eta hala jasota gera dadin eta behar diren ondorioetarako, agiri hau egin eta sinatzen dut,

Iruñean, 2024ko

(a)ren

(e)(a)n.

(Sinadura)

DATUEN BABESA - Datu Pertsonalak babestu eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko 3/2008 Lege Organikoan xedatutakoa betez, jakitera ematen dizugu deialdi honetako dirulaguntza tramitzeko emandako datu pertsonalak laguntza hau kudeatzeko baino ez direla erabiliko, eta datu horiek emateari uko egiteak dirulaguntzari uko egitea dakarrela. Era berean, jakinarazten zaizu, datu horiek Iruñeko Udalaren datu-basea osatzen duten fitxategietan biltzen ahalko direla, eta Iruñeko Udalera zuzenduta gauzatzen ahalko duzula datuetan sartu, datuak zuzendu, ezereztu eta haien kontra egiteko eskubidea, Erregistro Orokorrean (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora (www.pamplona.es/eu) joaz.



VII. ERANSKINA

LOGELA ALOKATZEAGATIKO ERRENTA-ZORRAREN EGIAZTAGIARIA

Nork egindako ordainagiria:

_____k

NAN/AIZ/PASAPORTEA _____

ERRENTATZAILE gisa.

Norendako:

_____rendako

NAN/AIZ/PASAPORTEA _____

ERRENTARI gisa

Ordainagiri hau egiten duenak, **ERRENTATZAILEA** den aldetik, adierazten du **ERRENTARIAK** gaur egun _____ € zor dituela, helbide honetan: _____ dagoen etxebizitzako logelaren alokairua ordaintzeko.

☐ Zordundutako hilabetea edo hilabeteak:

Izpta.: Errentatzailea:

Data:

AITORTZEN DUT hemen adierazitako datuak egiazkoak direla.

BAIMENA EMATEN DIOT Iruñeko Udalarari, bere eginkizunak gauzatzean, administrazio publiko eskudunek dituzten fitxategi publikoak egiaztatu eta kontsultatu ditzan, deialdi honetan eskatutako betekizunak eta inguruabarrak betetzen direla egiaztatze aldera (Errolda, Katastroa, udal zergak, Eskubide Sozialen Departamentuaren aplikazioa-SIPSSNET). Egiaztatu ahal izanen da errentatzaileak jabetzan duela etxebizitza, alokairu kontratuaren titularra dela eta/edo etxebizitza horretan erroldatuta dagoela.



VIII. ERANSKINA
LOGELAREN ALOKAIUAREN ORDAINAGIRIA

Nork egindako ordainagiria:

_____k

NAN/AIZ/PASAPORTEA _____

ERRENTZATZAILE gisa.

Norendako:

_____rendako

NAN/AIZ/PASAPORTEA _____

ERRENTARI gisa

Ordainagiri hau egiten duenak, **ERRENTATZAILEA** den aldetik, adierazten du
ERRENTARIARENGANDIK _____ € jaso dituela, helbide

honetan: _____

dagoen etxebizitzako logelaren alokairua ordaintzeko.

☐ Ordaindutako hilabetea edo hilabeteak:

Halaber, adierazten du alokairua data honetan ordaindu zela: _____, honela:

☐ eskudirutan, ☐ kontuan sartuta edo ☐ transferentzia bidez.

Izpta.: Errentatzailea:

Data:

AITORTZEN DUT hemen adierazitako datuak egiazkoak direla.

BAIMENA EMATEN DIOT Iruñeko Udalari, bere eginkizunak gauzatzean, administrazio publiko eskudunek dituzten fitxategi publikoak egiaztatu eta kontsultatu ditzan, deialdi honetan eskatutako betekizunak eta inguruabarrak betetzen direla egiaztatzeko (Errolda, Katastroa, udal-zergak eta Eskubide Sozialen Departamentuaren aplikazioa-SISPPSNET).



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

T. 948 420 100 / 010
www.pamplona.es

ÁREA DE ACCIÓN SOCIAL

Atención Primaria - Unidades de Barrio

GIZARTE EKINTZAKO ALORRA

Lehen Mailako Arreta - Auzo Unitateak

Egiaztatu ahal izanen da errentatzaileak jabetzan duela etxebizitza, alokairu kontratuaren titularra dela eta/edo etxebizitza horretan erroldatuta dagoela.



IX. ERANSKINA

ATERPE-PREMIAKO ZORRA ORDAINDU IZANA JUSTIFIKATZEKO ADIERAZPENA

.....jaunak/andreak (NAN/AIZ/PASAPORTEA:
.....) gizarte-larrialdian diren pertsonen eta familiei 2025.ean banakako
ebaluazio-araubidean zuzeneko diru-prestazioak emateko dirulaguntzen deialdiaren berri
edukita,

honako hau ADIERAZTEN DU:

BIZITOKI kontzeptuan eskatutako Larrialdietarako laguntza hori eskatzea justifikatu
zuten elementu edo ondasunak ordaintzeko erabili dut, eta
..... jaunari / andreak egin diot
..... hilabetez / hilabetez dagokien ordainketa, data
honetan:

Eta hala jasota gera dadin eta behar diren ondorioetarako, agiri hau egin eta sinatzen dut,

Iruñean, 2025(e)koaren(e)an

(Sinadura)

DATUEN BABESA: Iruñeko Udala arduratuko da Gizarte Zerbitzuetako, Komunitate Ekintzako eta Kiroleko Alorrek emandako dirulaguntzaren kudeaketa egiteko xedez erabiliko diren datu pertsonalez. Datuak, legeek aginduta, Dirulaguntzen Datu-base Nazionalari baino ez zaizkio jakinaraziko, eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko Foru Legearekin bat argitaratuko dira. Eskubidea duzu datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko –zuzenak ez badira– eta horiek ezabatzeko Erregistro Orokorrean (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora joaz. Pribatutasun-politikan kontsultatzen ahal dituzu tratamendu-zerrenda eta informazio gehigarria (www.pamplona.es/eu).